

San Joanen suetarako segurtasun-gomendioak

San Joan gaueko edo antzeko beste ospakizun batzuetako parte-hartzaile eta antolatzaileei zuzendutako neurriak dira honako hauek:

Saihestu sute eta istripuak San Joan gauaz benetan gozatzeko



Udal-agintari eta antolatzaileentzako gomendio orokorrak:

- Antolatzen duen kolektiboa edo erakundea ordezkatzeko duen **arduradun** bat egongo da, ondo identifikatuta.
- **Eraikin, ibilgailu edo landaredi altuetatik** urrun piztu sua. Orokorrean, elementu horietako batekiko distantzia, gutxienez, pilaketaren altuera baino 5 aldiz handiagoa izango da.
- Sua **argindarraren aireko lineetatik** edo telefono kableetatik urrun jarri.
- Aurreikusi **larrialdi-zerbitzuak** erraz igaro ahal izateko bide bat.
- Pilaketaren neurriek ez dute **4 metrotik gorakoak** izan behar (*zabalera, luzera eta altuera*).
- **Segurtasun-perimetro** bat markatuko da, 2 eta 4 metro bitartekoa, suaren tamainaren arabera. Suaren kudeatzaileak baino ezin izango dira sartu perimetro horren barruan.
- Mugatu erregaiak biltegitratzeko eremua.
- Saiatu aurreko egunetan pilaketarik ez egiten; ez, behintzat, sua piztu baino **72 ordu lehenagora arte**.
- Aldez aurretik biltegitratzeko eremu bat eta sua behin betiko jartzeko beste eremu bat badago, bigarrenari dagozkion baldintza berberak bete beharko dira lehenengo eremuan, nahi ez den sute bat ekidite aldera.
- Lurrari dagokionez, honda daitekeen **baldosa edo asfaltoa** bada, gutxienez, 10 cm-ko lodiera duen hareazko edo lurrezko oinarria jarri.
- Kontuan hartu **haizearen** indarra eta norabidea. Oso gogorra eta kaltegarria bada, ez ahaztu erretzeari utzi eta gauaz gozatzeko aukera duzula, beharrezkoak ez diren arriskurik gabe.
- Haizearen abiadura handia dela eta, **abisu horia** baldin badago, udal-agintariak erabakiko dute ekitaldiarekin aurrera egingo den, eta beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartuko dituzte. **Alerta laranja** edo **alarma gorria** egonez gero, ez da sua piztuko.
- Udalaren baiezkoa edo baimena duzula ziurtatu, udal-araudian hala eskatzen bada.
- Sua ez da **lau orduz** baino gehiago luzatuko, eta ez da piztuta egongo hurrengo eguneko **goizaldeko 02:00etatik** aurrera.
- Udal-baimen batekin baino ezin izango da suaren tamaina handitu edo iraupena luzatu.

Hartu beharreko neurriak:

- **Piztu sua** bakar-bakarrik papera, lasto lehorra eta ezpalak erabiliz, edo barbakoetarako pastillak erabiliz.
- Ez erabili likido sukoiak, hala nola alkohola, kerosenoa, gasolina edo disolbatzaileak (*ikusi eranskina*).
- Ez jarri objektu piroteknikorik suaren barruan edo alboan, ezta barrura bota ere (*suziriak, petardoak...*)
- Ez bota esprairik, poterik, latarik edo inolako zaborrik.
- Ez erre pneumatikorik, goma-apardun altzaririk, koltxoirik edo kuxinik. Ke toxikoak sortzen dituzte.
- Saiatu erregaiak lehor izaten. Horrela, hobeto erreko da, ke gutxiagorekin.
- Garbitu eremua, eta kendu zaborra eta objektuak, jendeak sutara bota ez ditzan.
- Ez jarri paperik edo oihalik pilatutakoaren kanpoko eremuan, suak berak sor ditzakeen aire-korronteek eraman baititzakete.
- Une oro egon behar du **heldu** bat sua zaintzen.
- Badaezpada, ur-mahuka eta su-itzalgailluak gertu eduki.
- Argia emateko, petrolioazko edo parafinazko argi-zuziak erabiliz gero, ziurtatu egonkor mantentzen direla erortzea edo sute txikiak saihesteko.
- Jaia amaitzean edo sua itzaltzen denean, ziurtatu haizeak arrastaka eraman dezakeen piztutako txingarrik ez dagoela; horretarako, ura erabiliko da erabat hozteko edo hareaz edo lurrez estaliko da.

Ustekabeko erreduren kasuan:

- Erretako larruazalaren eremua urez busti berehala, ahalik eta denbora gehien (*15 minutu*).
- Hasiera batean ez eman pomadarik edo desinfektatzailerik.
- Arropak su hartzen badu, bota lurrera eta biratu bi aldeetara, aurpegia eskuekin estaliz. Estali tapaki edo beroki batekin, eta leunki kolpatu sugarrak desagerrarazteko.
- Erredura sakona edo handia bada deitu SOS Deiak **112** telefonora, eta osasun-zentro batera eraman. Erretako eremua estali gabe utzi, edo estali serum fisiologikoz bustitako gasa esteril batekin.
- Oihalen bat azalera itsatsi bada, ez saiatu kentzen.



ERANSKINA (azeleratzaileen salbuespenezko erabilera)

Gogoan izan ez dituzula azeleratzaileak erabili behar (likido sukoiaren nahasketa).

Euria dela eta, azeleratzaileak erabili behar badira sua piztu ahal izateko, hartu honako hauek kontuan:

- Azeleratzaileak gasolio eta gasolinaren nahasketa izango da (gehienez, % 15eko gasolina) edo, bestela, produktu likido bat edo berariazko gel bat. **Ezin izango dira gasolina, alkoholak edo disolbatzaileak bakarrik erabili.**
- Azeleratzailea gordetzeko eta garraiatzeko ontziek **homologatuta egon** beharko dute, eta **tamaina egokia izan.**
- Arrazoizko kantitate proportzionatu bat erabili beharko da. Ez busti pilatutako guztia erregiarekin, nahikoa da oinarriaren azalera txiki bat bustitzearekin.
- Likido sukoiaren lurrinak airearenak baino pisu handiagoa dute. Pilatutakoaren barruan azeleratzailea sartuz gero, lurrinak beheko partean kontzentratuko dira.
- Ez da denbora luzea igaro behar azeleratzailea gehitzen denetik erretzen hasi arte, lurrunketa-prozesuak kontzentrazio deflagratzaileak sortzea ekiditeko. Bi ekintzen artean, gehienez ere, **20 segundoko** tarte egotea gomendatzen da. Ontzia ondo itxita jarri beharko da eta sutik metro batzuetara, sugarra aplikatu baino lehen. Bi pertsonen artean egin beharko dute lan hori, arduraz eta zer egiten ari diren jakinda.
- Sua hasi bezain laster, ezin izango da azeleratzaile gehiagorik bota, ontziari su emateko arriskua baitago.

Ahal den neurrian, ez erabili azeleratzaileak, oso arriskutsua baita horrelakoak erabiltzea